



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2017ko lehenengo hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

| | |
|--|----|
| Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera..... | 3 |
| Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak..... | 7 |
| Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak..... | 13 |
| Eranskina - Indizeak..... | 19 |
| Eranskina - Metodologia | 23 |
| Fitxa Teknikoa..... | 26 |

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- Hobetu egin da EAEko familien konfiantza
- Emaitza Espainiako eta Europako familietakoaren berdina izan da
- Ez da aldaketa esanguratsurik izan Frantzian, Erresuma Batuan edo Alemanian




1 | hobetu egin da EAEko familien konfiantza

2017ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzaren balioa aurreko hiruhilekoko berbera (-3) izan da, eta 2016ko urteko batez bestekoaren antzekoa (-4). Hala, EAEko familien konfiantza balio neutroaren (zeroaren ingurukoa) ingurukoan sendotu da zortzi hiruhilekotan pixkanakako hobekuntza izan ostean.

Honako hauek hartu behar dira kontuan:

- 2017ko lehen hiruhilekoa aurreko hiru urteetako lehen hirutakoa baino askoz ere hobea izan da (-23, -9 eta -7, 2014, 2015 eta 2016an) eta
- Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa urteko batez besteko balioa baino “okerragoa” izaten da (-19, -5, -4, hurrenez hurren).


Kontsumitzailearen konfiantza. EAE



2 | emaitza Espainiako eta Europako familietakoen berdina izan da

EAEko familien konfiantza (-3) 2016ko laugarren hiruhilekoan izandako balio berekoa izan da eta joera bera ikusi da Estatuko (-3, ehuneko 0 puntu) eta Europako (-5, + ehuneko 1 puntu) familien artean ere.

Urte-hasierak ez du berrikuntza handirik 2016ko bigarren sei hilekoarekin alderatuta; ondorioz, familiek gertaera jakin batzuek izan dezaketen eraginaren zain jarraitzen dute: Brexita, jarduera ekonomikoaren mantsotze posiblea edo prezioen igoera.



* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko I hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urtarrileko eta otsaileko datuen batez bestekoari dagozkio.


3 | aldaketa esanguratsurik gabe Frantzian, Erresuma Batuan edo Alemanian

2017ko lehen hiruhilekoan, Frantziako familien konfiantza oraindik ere ezkorra da, baina hobetu egin da (-9 eta ehuneko + 4 puntu). Dagoeneko hauteskudeen eragina nabari da.

Erresuma Batuko familiak posizio negatiboan (-5, ehuneko + 0 puntu) daude, baina, itxuraz, aldaketak gauzatzeko denbora beharko dela barneratu dute.

Azkenik, Alemaniako familien konfiantzak ditu datu onenak (0, ehuneko +2 puntu) eta posizio neutroan dago. Aztertutako hiru esparruetan, familien konfiantza oso pixkanaka hobetzen ari da.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batua eta Alemaniaren 2017ko I. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urtarreko eta otsaileko datuen batez bestekoari dagozkie..

EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN OSAGAIK


- EAEko familiek ekonomia orokorraren inguruan duten konfiantza hobetu egin da
- Eta enpleguaren inguruko igurikimen positiboa mantendu dute
- Bina familiako ekonomiaren inguruko igurikimena ahuldu egin da
- Eta aurrezki-igurikimena oraindik ere negatiboa da
- 2017. urtea EAEko familien konfiantza sendotuz hasi da

4 | EAEko familiek ekonomia orokorraren inguruan duten konfiantza hobetu egin da

2016. urteko datuek jarduera (BPG % +3,1) eta enplegua (% +1,9) handitu egin direla erakusten dute. Horiei, gainera, beste datu batzuk gehitu behar dizkiegu: afiliazioa hobetu da eta erregistratutako langabezia gutxitu egin da (otsailean, urtetik urterako % 2,0 eta % -9,9 hurrenez hurren).

Testuinguru horren baitan, handitu egin da ekonomia orokorraren egoera hurrengo hamabi hilabeteotan berdin mantenduko dela edo hobetu egingo dela uste duten EAEko familien ehunekoak. Hau da, igurikimen positiboagoa nagusitzen ari dela dirudi eta ekonomia orokorrarekin lotutako konfiantza-indizea -5etik -3ra aldatu da (oso posizio neutroa da hori).

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak




5 | eta enpleguaren inguruko igurikimen positiboa mantendu dute

Enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimenek hobetzen jarraitzen dute eta 10 puntutan kokatu dira. Joera nabarmen da positiboa. Dagoeneko zortzi hiruhileko positibo izan dira, 2014ko balio ezkorretatik aldentuta.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da enpleguaren bilakaeraren inguruko familien konfiantza-indizearen balioak 2017ko lehen hiruhilekoan lortu duela hamahiru hiruhilekotan izandako emaitzarik onena.

Langabeziarekiko igurikimenak




6 | baina familiako ekonomiaren inguruko igurikimena ahuldu egin da

2017ko lehen hiruhilekoan, familiako egoera ekonomikoaren inguruko igurikimenean indizea okertu egin da (-8, ehuneko -5 puntu) aurreko hiru hiruhilekoekin alderatuta.

Honako hauek hartu behar dira kontuan: lehen hiruhilekoan, familiek haien egoera ekonomikoaren inguruan egiten duten balorazioa izaten da urte osoko okerreana. Hori agerian geratu zen urte hauetan ere: 2014an (-16; -14 urteko batez bestekoa), 2015ean (-9; -7 urteko batez bestekoa) eta 2016an (-9, -5 urteko batez bestekoa).

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak




7 | eta aurrezki-igurikimena oraindik ere negatiboa da

Era berean, EAEko familien aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenen indizea oraindik ere ezkortasuneko baliotan dago (-12) eta ez du lortu benetako hobekuntza islatzen duten balioetara igotzea.

EAEko familien aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimenen indizeak hobekuntza adierazi du azken urteotan: 2014an (-23), 2015ean (-16) eta 2016an (-12). Hala ere, asko baldintzatzen du familietako diru-sarreraren eta enpleguaren susperraldiak.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



8 | 2017. urtea EAEko familien konfiantza sendotuz hasi da

2017ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizea -3 puntukoa da; hau da, 2016ko laugarren hiruhilekoan izandako zifra bera. Ondorioz, 2015eko bigarren erdialdean hasitako hobekuntzako bidean jarraitzen du.

EAEko familien konfiantzaren oinarria enpleguaren (10, ehuneko + 1 puntu) eta ekonomia orokorraren (-3, ehuneko + 2 puntu) bilakaerarekin lotutako igurikimen positiboa izan da. Bilakaera positibo horiek konpentsatu egin dute aurrezkiaren susperraldiarekin lotutako igurikimenean hobekuntzarik ez izana (-12, ehuneko 0 puntu) eta familiako ekonomiaren balorazioak izandako jaitsiera (-8, ehuneko -5 puntu).

Hala, 2017ko lehen hiruhilekoak agerian utzi du EAEko familien konfiantza sendotu egin dela alde batetik, eta urte-hasiera ona izan daitekeela, 2014an, 2015ean eta 2016an, lehen hiruhilekoko konfiantzaren datuak gainerako hiru hiruhilekoetan baino balorazio okerragoa izan baitute.


Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE

| Indizea | 2014 | 2015 | 2016 | II H-16 | III H-16 | IV H-16 | I H-17 |
|-------------------------|------|------|------|---------|----------|---------|--------|
| Familien konfiantza | -20 | -6 | -5 | -3 | -5 | -3 | -3 |
| Ekonomia orokorra | -21 | -4 | -7 | -7 | -7 | -5 | -3 |
| Etxeko ekonomia | -15 | -9 | -5 | -5 | -4 | -3 | -8 |
| Langabeziaren bilakaera | -18 | 3 | 9 | 9 | 3 | 9 | 10 |
| Aurrezteko gaitasuna | -23 | -16 | -12 | -11 | -10 | -12 | -12 |



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek prezioen igoera handiagoa izango dela uste dute
- Erosketa-unearen inguruko lehen balorazio positiboa hiru urtean
- Ez dago aldaketarik “erosketa handiak” egiteko igurikimenean
- Zertxobait igo da etxebizitza erosteko asmoa, eta autoarena mantendu
- Prezioak igo arren, erosketa handietarako eta inbertsiorako asmoa suspertu egin da




9 | EAEko familiek prezioen igoera handiagoa izango dela uste dute

2017ko lehen hiruhilekoan, prezioen bilakaeraren inguruko igurikimena okerragotu egin da. Izan ere, prezioak askoz ere bizkorrago igoko direla uste duten familien ehunekoa handiagoa (% 45, ehuneko +23 puntu) izan da; aldiz, jaitsi egin da azken 12 hilabeteotan motelago (% 16, ehuneko -12 puntu) edo gertatu den antzeko eran igoko direla uste duen kolektiboaren ehunekoa (% 38, ehuneko -12 puntu).

Iritzi horren (indizea) emaitza erantsia 6 puntutik -29 puntura igaro da eta adierazle horrek izandako jaitsiera bat-batekoena eragin du. Horrek abenduko eta urtarrileko energia-fakturaren eta KPlaren igoera biltzen ditu².

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan? (pertsoneen %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko

² EAEko KPlak % 1,5eko eta % 2,9ko urtetik urterako igoerak izan dituzte abenduan eta urtarrilean; energia-produktuak eta landu gabeak deskontatzen baditugu, ehuneko horiek % 1ekoak eta % 1,2koak dira.


10 | erosketa-unearen inguruko lehen balorazio positiboa hiru urtean

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,...)?

Erosketa-unearen balorazioa aurreko hiruhilekoetakoaren oso antzekoa izan da: gehienen ustez, ez da une txarra, baina ona ere ez (% 64, ehuneko +1 puntu); okertu egin da une txarra dela diotenen ehunekoa (% 18, ehuneko -5 puntu), eta handitu une ona dela uste dutenena (% 18, ehuneko +4 puntu).

Familien iritziaren emaitza erantsia da erosteko unearen inguruko balorazio-indizea eta, azken hiru urteotan lehen aldiz, positiboa izan da (0 puntutik 9 puntura igaro da)

Erosteko unearen balorazioa¹
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


11 | ez dago aldaketarik “erosketa handiak” egiteko igurikimenean

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2017ko lehen hiruhilekoan, gutxitu egin da erosketa handiak egiteko mailari eutsiko diotela dioten kontsumitzaileen indizea (% 56, ehuneko -11 puntu), horiek ugaritu (% 15, ehuneko +7 puntu) edo gutxitu egingo dituztela (% 30, ehuneko +5 puntu) uste dutenekin alderatuta.

Hala, erosketa handietarako asmoaren indizeak ez du aldaketarik izan (-12, ehuneko 0 puntu), eta balio negatibotan dago 2014. urtearen hasieratik etenik gabe²,

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek %-a)



¹ Azken hamabi hilabeteekiko


² 2014. urtea, KKla neurtzen hasi zireneko unea.

12 | zertxobait igo da etxebizitza erosteko asmoa, eta autoarena mantendu

2017ko lehen hiruhilekoan, euskal familien % 3,6k datorren urtean etxebizitza erosteko nolabaiteko asmoa adierazi du. 2016ko eta 2015eko urteko batez besteko datuarekin alderatuta (% 1,8koa izan zen bi kasuetan), hobetzeko joera dagoela ikus dezakegu.

Etxebizitza erosteko asmoa


(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek % -a)



EAEko familien % 5,6k aipatu du hurrengo hamabi hilabeteotan autoa erosteko asmoa duela. Ehuneko horrek 2016ko urteko batez besteko emaitza (% 5,2) mantendu, eta 2015ekoa (% 3,5) hobetu du.

Autoa erosteko asmoa

(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek % -a)






13 | prezioak igo arren, erosketa handietarako eta inbertsiorako asmoa suspertu egin da

2017ko lehen hiruhilekoan, EAEko familiek adierazi dute haien ustez prezioak orain arte baino askoz ere gehiago igoko direla. Ondorioz, prezioen igurikimen-indizea nabarmen okerragotu da (6tik -29ra).

Dena den, nabarmendu beharrekoa da erosteko unearen balorazioko eta erosketa handiak egiteko asmoaren indizeak balio negatiboetatik atera direla hiru urteotan¹ lehen aldiz (+9 eta 0 puntu, hurrenez hurren).

Horrez gain, etxebizitza erosteko asmoren bat dutela adierazi duten EAEko familien ehunekoak % 3,6koa izan da. Ondorioz, urte batzuetan atzerakada gertatu ostean, susperraldi arina gertatu dela esan dezakegu. Jarduera eta enplegua hobetu izana susperraldi horren oinarriak izan daitezke.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

| | <u>2015</u> | <u>2016</u> | <u>II H-16</u> | <u>III H-16</u> | <u>IV H-16</u> | <u>I H-17</u> | <u>Aldea</u> | |
|------------------------------------|-------------|-------------|----------------|-----------------|----------------|---------------|--------------|---|
| Prezioen bilakaeraren igurikimenak | 6 | 14 | 21 | 15 | 6 | -29 | -23 |  |
| Erosteke unearen balorazioa | -19 | -8 | -7 | -6 | -9 | 0 | +9 |  |
| Erosketak egiteko igurikimenak | -12 | -10 | -14 | -6 | -12 | -12 | 0 |  |

⇔ (±2 puntuko aldea)


¹ 2014. urtea, KK1a neurtzen hasitako unea

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Beste adierazle batzuk



I | Laburpena: familien konfiantzaren indizea

| | 2015 | 2016 | II H-16 | III H-16 | IV H-16 | I H-17 | |
|---|------|------|---------|----------|---------|--------|---|
| Kontsumitzaileen konfiantza-indizea | | | | | | | |
| • EAE | -6 | -5 | -3 | -5 | -3 | -3 | ▶ |
| • Estatua* | 0 | -4 | -3 | -6 | -4 | -3 | ▶ |
| • EB* | -4 | -6 | -6 | -7 | -6 | -5 | ▶ |
| ○ Frantzia* | -17 | -14 | -14 | -14 | -13 | -9 | ▼ |
| ○ Alemania* | 0 | -4 | -3 | -3 | -2 | 0 | ▶ |
| ○ Erresuma Batua* | 3 | -3 | -1 | -6 | -5 | -5 | ▶ |
| Osagaiak: familien konfiantza. EAE | | | | | | | |
| • Ekonomia orokorra | -4 | -7 | -7 | -7 | -5 | -3 | ▶ |
| • Etxeko ekonomia | -7 | -5 | -5 | -4 | -3 | -8 | ▼ |
| • Langabezia | 3 | 4 | 9 | -2 | 9 | 10 | ▶ |
| • Aurrezkia | -16 | -12 | -11 | -10 | -12 | -12 | ▶ |
| Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE | | | | | | | |
| • Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak | 6 | 14 | 21 | 15 | 6 | -29 | ▼ |
| • Erosteke unearen balioztapena | -19 | -8 | -7 | -6 | -9 | 0 | ▲ |
| • Erosketak egiteko igurikimena | -12 | -10 | -14 | -6 | -12 | -12 | ▶ |
| Erosketa handiak. EAE.** | | | | | | | |
| • Etxebizitza | 1,8 | 1,8 | 2,7 | 1,4 | 2,0 | 3,6 | ▶ |
| • Autoa | 3,5 | 5,2 | 6,6 | 5,1 | 5,4 | 5,6 | ▶ |

↔ (± 2 puntuko aldea)

* I hiruhileko datuak urtarrila-otsaileko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

| | 2015 | 2016 | II H-16 | III H-16 | IV H-16 | I H-17 | |
|---|------|------|---------|----------|---------|--------|---|
| Kontsumitzaileen konfiantza-indizea | | | | | | | |
| • EAE | -6 | -5 | -3 | -5 | -3 | -2 | ▶ |
| Adin-mailak | | | | | | | |
| • 25 eta 39 urte bitartean | -4 | -3 | 2 | -4 | -6 | 2 | ▲ |
| • 40 eta 54 urte bitartean | -4 | -1 | 1 | -2 | 2 | -1 | ▼ |
| • 55 eta 64 urte bitartean | -9 | -6 | -7 | -5 | -3 | -6 | ▼ |
| • 65 eta 74 urte bitartean | -8 | -12 | -12 | -14 | -6 | -11 | ▼ |
| Lan egoera | | | | | | | |
| • Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa) | -1 | 1 | 3 | -2 | 2 | 2 | ▶ |
| • Langabea | -19 | -18 | -19 | -16 | -11 | -9 | ▶ |
| • Ez-aktiboa (erretiratu, etxeko langilea, ikaslea, ..) | -8 | -9 | -8 | -8 | -6 | -9 | ▼ |
| Familia-unitatearen hileko errenta | | | | | | | |
| • 1.700 €-rainokoa | -21 | -21 | -23 | -22 | -15 | -18 | ▼ |
| • 1.701 eta 2.800 € bitartekoa | -3 | -4 | -6 | -5 | -2 | 0 | ▶ |
| • 2.800 €-tik gorakoa | 9 | 7 | 2 | 8 | 8 | 12 | ▲ |

⇔ (± 2 puntuko aldea)

III Beste adierazle batzuk

| | I H – 16 | II H – 16 | III H – 16 | IV H – 16 | I H – 17 _(p) | (azkena) |
|--|-------------|-------------|--------------|-------------|-------------------------|----------|
| BPG | 3,3 | 3,2 | 3,0 | 2,9 | -- | IV hir. |
| Familien kontsumoa | 3,3 | 3,4 | 3,1 | 2,9 | -- | IV hir. |
| Afiliazioa | -0,4 | 1,1 | -0,5 | 1,8 | -0,6 | Otsaila |
| Erregistratutako langabezia | 1,5 | -3,9 | -3,7 | -3,2 | 0,6 | Otsaila |
| Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea | 1,0 | 1,3 | 0,0 | -0,1 | | IV hir. |
| Etxebizitzen salerosketa | 35,8 | 4,2 | -15,8 | -9,0 | -- | IV hir. |
| Ibilgailuen matrikulazioa | -8,0 | 14,6 | -14,9 | 12,0 | -3,8 | Otsaila |

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA - METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 804 laguni egin zaie.
- Otsailaren 15etik 24ra (2017ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm



LABORAL
kutxa